LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
**Telf. 948637005**
**www.lesaka.eus**
**udala@lesaka.eus**

**2023-2024 kanpainako mendiko lanak.**

**Kontratazioa Mahaiaren akta.**

**-Eguna:** 2024.01.17.
**-Ordua:** Goizeko 9:30etan.

-Mahaikideak:
-Lehendakaria: Ladis Satrustegui Alzugaray.
-1. Mahaikidea: Pello Astiz Elverdin
-2. Mahaikidea: Enrique Montero Santa Eugenia.
-2. Mahaikidea: Iñigo Urdangarín Zurutuza.
-Idazkaria: M.Jose Larrayoz Ariztegui.

Ingurumeneko zuzendari nagusiak emandako 90/2023 ebazpenaren bidez, ekainaren 8koa, toki entitateek eta eragile pribatuek sustatzen dituzten basolanetarako laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onesten ditu 2023-2024 ekitaldirako (2014-2020 LGParen 04.03.05 eragiketa, 04.03 azpineurria –Basogintzako azpiegituretako inbertsioak–, eta 2014-2020 LGParen 08.05.01 eragiketa, 08.05 azpineurria –Basoetako ekosistemen egokitzapen gaitasuna eta haien ingurumen balioa handitzeko inbertsioak).

Basartea S.L. enpresak egin du proiektua 2023ko irailaren 3an eman da sarrera (sarrera-erregistroko zk.: 2836/2023).

Lan hauek sartuak daude: basoberritzeak, baso lanak eta azpiegiturak.

Esleitu nahi dira basoberritzeak eta baso lanak. Horretarako alkatearen 2023ko abenduaren 18ko 568/2023 ebazpenaren bidez aipatutako lanak esleitzeko agindua ematea, prozedura erraztua erabiltzea eta Nafarroako lizitazio elektronikoaren plataformaren bidez aurkeztu behar dituzte proposamenak gonbidatuko diren bertze enpresa hauek: Jose Maria Oiartzabal Irazoki, Repoblaciones Aguinagalde S.L., Berdabio Basogintza S.L., Repoblaciones Echarte S.L., Pako Altzuri S.L., Oihan Zerbitzuak S.L., Conserjeria Ibardin S.L. eta Forestales Erlaitz S.L .

Lanak esleitzeko lote bat sortu da:

1.- Basoberritze lanak eta baso lanak: 91.960,71 euroko aurrekontuarekin, BEZ kanpo / 101.675,73 euro BEZ barne.

2023ko urtarrilaren 8an kontratazioa mahaia bildu da irekitzeko epean barne aurkeztutako proposamenak:

- Berdabio Basogintza S.L.
- Repoblaciones Aguinagalde S.L.
-Repoblaciones Etxarte S.L.

1.kartazala ireki ondoren ikusi da - Berdabio Basogintza S.L. eta Repoblaciones Etxarte S.L. enpresak ez dutela aurkeztu kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa eta profesionala. Epea eman zaie hori osatzeko.

Bi enpresak aurkeztu dute eskatutakoa eta ondorioz 3 enpresak onartuak izan dira deialdira.

Ondoren, 2. Kartazala ireki da eta proposamen ekonomikoak hauek izan dira

**1. LOTEA** **1º LOTE**

| ***Lizitatzailea/*****Licitante:** | ***Eskaintza eurotan BEZ kanpo:*** |
|---|---|
| Berdabio Basogintza S.L. | 86.902,87 euro |
| Repoblaciones Aguinagalde S.L. | 86.351,11 euro |
| Repoblaciones Etxarte S.L. | 91.041,10 euro |

Pleguaren arabera hona hemen bakoitzak lortutako puntuazioa:

**1. LOTEA** **1º LOTE**

| ***Lizitatzailea/*****Licitante:** | **PUNTUAK** |
|---|---|
| Repoblaciones Aguinagalde S.L.. | 100,00 puntu |
| Berdabio Basogintza S.L | 99,37 puntu |
| Repoblaciones Etxarte S.L. | 94,85 puntu |
| | |
| | |

Ondorioz, proposatzen da esleitzea aipatutako lanak **Repoblaciones Aguinagalde S.L.** enpresari.

Halaber, empresa horri 7 egun naturaleko epea ematea pleguaren 14. puntuaren dokumentazioa aurkezteko, lanak berari esleitzeko.

29031083T ENRIQUE MONTERO (R: B31565377)

44561288F LADIS SATRUSTEGUI (R: P3115200B)
Firmado digitalmente por 44561288F LADIS SATRUSTEGUI (R: P3115200B)
Fecha: 2024.01.24 18:52:09 +01'00'

-Lehendakaria: Ladis Satrustegui Alzugaray.
-1. Mahaikidea: Pello Astiz Elverdin
-2. Mahaikidea: Enrique Montero Santa Eugenia.
-3.Mahaikidea: Iñigo Urdangarín Zurutuza.
-Idazkaria: M.Jose Larrayoz Ariztegui.

15965120S IÑIGO DE LOYOLA URDANGARIN (R: P3115200B)
Digitalki sinatuta norengandik: 15965120S IÑIGO DE LOYOLA URDANGARIN (R: P3115200B)

18210359V MARI JOSE LARRAYOZ (R: P3115200B)
Digitalki sinatuta norengandik: 18210359V MARI JOSE LARRAYOZ (R: P3115200B)